

Zortzi urrats irakaskuntzatik itzulpengintzara

*Begoña Alcedo Momoitio eta
Noemí Pastor Martínez**

Eskerrak bihotzez Karmele Amezaga, Luisa Chamosa
eta Garbiñe Okerantza lankideei

Urteak emanda euskararen irakaskuntzan euskaltegi publiko batean, itzultzaile-lanetan aritu beharrean kausitu ginen eta bi unibertso horien — irakaskuntza eta itzulpengintza— arteko jauzia egin beharrean, beraz. Bi mundu horien arteko trantsizioan topatu ditugun aldeak eta egin behar izan ditugun urratsak batu, eta zortzi kategoriatan sailkatuta azaldu nahi izan ditugu artikulu honetan. Hauexek dira zortzi urrats horiek:

- 1.- Arauak betetze eta betearztetik arauak apurtzera
- 2.- Corpus linguistiko mugatua irakastetik hizkuntzaren inguruko eremu anitz kudeatzera
- 3.- Hartzaile zehatz ezagunak izatetik hartzaile identifikatugabe orotarikoak izatera
- 4.- Estilistika eta erretorika alboratzetik estilistika eta erretorika beti presente edukitzera
- 5.- Hizkuntza estatikotik hizkuntza dinamikora
- 6.- Hizkuntza bakarra transmititzetik hizkuntza batetik bestera ibiltzera
- 7.- Hizkuntzaren zamaketaria izatetik sortzailea izatera
- 8.- Estatus presentzialetik ikusezintasunera

Behin urratsok garatuta, irmo adierazten dugu zubi-lana egin behar dugula bi eremu horien artean, hizkuntzaren mesedetan egin behar ere.

* anikeras@euskalnet.net
noemipastor@gmail.com

1. Atarikoa

1.1. Autobiografia pixkat

Esan bezala, urte franko eman genituen euskararen irakaskuntzan, eta, horren ostean, itzultzaile gisara jardun behar izan genuen. Ikasle-talde bati gramatikaren oinarria irakastetik testugintzan aritzera igaro ginen, itzulpenak egitera, gaztelaniatik euskarara gehienetan; alderantziz ere noiz edo noiz, baina askoz gutxiagotan.

Eta zeregin-aldatze horrek eraginda, burua ere aldatu behar izan genuen; hau da, gogoia, estiloa, jarduteko modua, begiratzeko modua, baita pentsatzeko modua ere. Sakratua zirudien arau bat baino gehiago puskatu behar izan genuen, eta, puska horiek guztiak lurretik bilduta, beste arautegi bat osatu. Bilakatze sakon eta luze horren berri ematen saiatu gara datozen lerrootan.

1.2. Ideia nagusia

Artikuluxka honen ideia nagusia da lan-ibilbide horretan bi ogibide horien arteko trantsizioan topatu ditugun aldeak zehaztea. Esan bezala, lanpostuz aldatzean, burua egokitu, birprogramatu egin behar izan dugu gako askotan, eta gako horiek zeintzuk izan diren azaldu nahi izan dugu.

Aitortu beharrean gaude, bestetik, irakaskuntzaz eta irakasleez aritu garenean, irakaskuntzaren eta irakaslearen irudi guztiz klasikoa erabili dugula, estereotipo bilakatu samarra, nahita erabili ere, irakaskuntza eta itzulpen-gintzaren arteko kontrastea nabarmenago egitearren.

Ikasle ginenean, zer esanik ez, irakaskuntza klasikoa baino ez genuen eza-gutu. Geroago, irakasle bilakatuta, metodologia berrietara egokitu behar izan baginen ere, ikasle denboretan jasotako eredu klasiko haren ondorengoak izan gara neurri handi batean. Azken urteotan, metodologia eta korrante berriek euskararen irakaskuntzari ikuspegi berritzailea eman diote, zeharo aldatu da programatzeko modua eta nabarmena da aurrerakada. Halarik ere, betikoa da hizkuntzak irakasten dituenaren erroka: hots, benetako hiztunak sortzea, jardun errealetan trebeak izateko beste hiztun batzuekin el-karreraginezko komunikazioa izan dezaten. Honenbestez, hara iristeko bideak seinaleztapen berriz beterik badaude ere, helburua betikoa dela jakin dugu betidanik irakaskuntzan jardun dugunok.

2. Zortzi urratsak

2.1. Arauak betetze eta betearaztetik arauak apurtzera

Irakasleak hizkuntza, gramatika-arauak bete behar ditu beti, eta ikasleei betearazi, azterketa ofizialak gaindituko badituzte. Arauak bete eta betearazi behar hori hertsia da oso.

Itzultzaileak, berriz, malgutasunez jokatu behar du; nahitaez. Komunikagarritasuna eta ulergarritasuna helburu izanik, hizkuntz arauak gailendu ez ezik, tenkatu, bortxatu ere egiten ditu: “Itzultzaileak zarete: onaren eta gaizkiaren gaineratik zaudete”, esaten zigun ikastaro batean traduktologo batek, esan nahian gora, oso gora begira jardun behar genuela, handinahi, botereitsu, geure zereginaren garrantziaz ondo jabetuta, arauak sormenez gaindituta.

Horretarako, itzultzaileak ausardia eta askatasuna behar du. Hala ausardiaz nola askatasunez jokatu beharra dauka, eta hor dago arriskua. Jarrera apurtzailea behar du beti. Izan ere, itzultzea erabakiak hartzea da, eta hainbeste kostatzen zaigun hori une oro egin behar du itzultzaile dabilenak. Eta erabakiak hartzeak berez akatsak egitea dakarrenez gero, akatsak egiteko abagune ugari duela onartu beharko du, eta, behin hori ametituta, aurrera egingo du.

Irakaskuntzan, aldiz, akatsak deitoratuak dira oso; barkaezinak ikasleentzat. Akatsik ez egiteari begira, beraz, irakasleak arauak betearaziko dizkie ikasleei, arau-emaile, transmititzaile eta betearazle izanik. Irakaslearen eginkizunetan arauak jakin eta menperatzea dago. Arau horiek gorengo batzuek ezarri dituzte, gorengo jakintza mailakoek hartu dituzte erabakiak, eta irakasle-ikasleok haietara makurtu beharra daukagu, beste barik. Irakaslea ez da aske, transmisio-katearen beste elementu bat baino ez da; baina, bestetik, salbu dago erabakiak hartu behar izatetik.

Itzultzailea, berriz, etengabeko deliberoan dago, ezbaian, dakienaren eta izan litekeenaren artean. Zalantzarekin bizi beharko du. Irakasleak, ordea, ezagupen trinkoak, mugiezinak eta monolitikoak maite ditu; zerbait sendoa irakasten duelako irudipena transmititu behar die ikasleei, zeren eta horrek lasaitasuna eta ziurtasuna emango baitie. Haren prestigioa ere jokoan dago, bai irakasle klasiko ortodoxoa izan, bai irakasle dinamizatzaile kinesikoa izan.

2.2. Corpus linguistiko mugatua irakastetik hizkuntzaren inguruko eremu anitz kudeatzera

Aurreko atalaren ondorio gisara, esan genezake irakasleak gramatika-arauek mugaturiko corpora irakatsi behar diela ikasleei.

Itzultzaileak, ordea, aintzat hartu behar ditu hizkuntzaren inguruko alderdi anitz; hasiera batean, alderdi estralinguistiko diruditenak ere bai. Adibidea jarriko dugu. Demagun kartel bat euskaratu behar dugula. Kartelaren testuari, noski, erreparatu beharko diogu, baina, horretaz aparte, beste hainbat faktore ere hartu beharko ditugu kontuan: hala nola, hasteko, kartel elebidun bakarra izango den edo berezoak bi kartel (bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz) nahi ote dituen; kartelaren neurriak ere jakin beharko ditugu, horretara egokitze aldera letra-tamaina, esaldien antolamendua espazioan, ortografia eta abar; horretaz gain, kartela non erakutsiko duten (kalean?, webgune batean?), nork irakurriko duen (haurrek?, aitona-amonek?, herritar orok?), mezuaren muina zein den eta beste hainbat zehaztapen lagungarri izango zaizkigu erabat, lana ondo egingo badugu.

Alderdi horiek guztiek baldintzatzen dute itzultzailearen lana, eta haiekin etengabe jardun behar du itzultzaileak; alderdi inposatu horiek guztiak maneiatu behar ditu, bai eta haiekin jokatu ere. Maiz testua bera baino munta handiagokoak izango dira hasiera batean «estralinguistiko» diruditen alderdi horiek, eta, itzulpena bera argitara aterarazi bezalaxe, itzali ere egin dezakete, lan guztia alferrik botaz.

Irakaskuntzan, berriz, hori guztia albora geratzen da. Ez da interesekoa, ez eta garrantzizkoa ere, hizkuntza jasotzen ari denarentzat. Horrek ez dio irakasleari axola, beste kezka bide batzuk baititu: deklinabidea, aditzak, menderagailuak, hiztegia... Eta inportanteena: ikasleak motibatzea; haien beldurra, frustrazioa, ezina, poza kudeatzea. Pedagogia egitea, azken batean.

Itzultzaileak, irakaskuntzan ezezagunak diren askotariko elementu horiek erabiliz, hizkuntza antolatu eta egituratu beharko du. Irakaskuntzan muzin egiten zaion esparru horrek baldintzatuko du itzultzailea zeharo. Ordainetan, ez du pedagogiarik egin behar izaten.

2.3. Hartzaile zehatzak eta ezagunak izatetik hartzaile identifikatugabeak eta orotarikoak izatera

Irakasleak aurre-aurrean ditu hartzaileak; ikasleak izango dira ia-ia gehienetan, ezagunak —izen, abizen eta guzti— eta lotura afektiboetarako prest. Aurreko atalean adierazi dugun bezala, itzeleko zama izaten dira irakasleentzat ikasleen arazoak, kexak eta ardurak. Irakasleek gizakiak hartu behar dituzte kontuan, baita zaindu, motibatu eta animatu ere.

Itzultzaileak, aldiz, mezuaren jasotzailea baino ez du izango buruan sarri askotan; eta zorionekoa bera, baldin eta telefonoaren edo pantailaren bestaldean badago. Honelako galderak egin beharko dizkio bere buruari: Norrentzat da testu hau? Herritar ororentzat edo kolektibo jakin batentzat? Zein dira publizitate-kanpaina honen hartzaileak? Zein helburu du testu honek? Zertarako da?

Galdera horiek guztiak egokiak dira, eta ezinbestekoak ere bai, hartzaile identifikatugabekoen araberkoa izango baita dena. Itzultzaileak abstraktotasun hori du aurrean, unibertso osoa begien aurrean baleuka legez.

Irakasleak, ordea, hartzaile zehatzak, izen eta aurpegidunak, haragi eta hezurrezkoak izango ditu, aurre-aurrean gainera. Ikastaldeari begira jardungo du. Harexeri baino ez dio erreparatu beharrik izango. Anitzetan talde heterogeneoa izanik ere, osotasunean hartuko du. Berebat, behar psikopedagogikoak hainbat izango dira, eta haien araberkako eskolak prestatuko ditu, betiere ikuspegi globalaz. Hala ere, banakotasun eta globaltasunean mugituko da, eta haren abilezia-proba izango da bien arteko oreka lortzea. Irakasleak adina mundu dago, eta, hiztunak lortu behar dituzenez, ikasle bakoitzaren beharrak egokitu eta asebetetze egingo ditu. Dena dela, taldeaz ere kezkatu behar du, bezeroak ikastaldearen mikrounibertsoan ondo sentitu daitezzen.

2.4. Estilistika eta erretorika alboratzetik estilistika eta erretorika beti kontuan edukitzera

Irakaslearen aburuz, estilistika literaturari dagokio, eta ez du aintzat hartzen eginkizunen barruan. Horren ondorioz, irakasleak ez du estilistika irakasten. Irakasle-irakasleen eskakizunetan ez dago horren aipamenik. Itzultzaileak, berriz, estilistika gogoan eduki behar du nahitaez.

Egin dezagun azalpen labur bat erretorikari buruz. Euskaltzaindiaren hiztegiak honela definitzen du: “Ongi hitz egiteko edo idazteko artea eta horretarako erregela multzoa”¹.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa ez da asko aldentzen Euskaltzaindiaren definizio horretatik: “Ongi hitz egiteko edo idazteko artea eta erregela- eta prozedura-multzoa”².

Espainolez existitu egiten da erretorika, mendeetan sortuz eta finkatuz joan den arau-multzoa. Erretorikak hitzunen buruan oihartzuna du. Hainbat esamolde erretoriko guztiz hedatuta daude espainolez, baita hizkera arruntean ere. Onartuta daude erabat, hitzun-kopuru mordoak ulertzen baititu.

Jar dezagun adibide bat. Zuzenbidean aditua izan gabe, espainolez mintzatzen garen gehienok badakigu zer den edo ulertzen dugu zer esan nahi duen “*proceder*” aditzak. “*El tribunal procedió a archivar la causa*” esaldian, kasu, aditz horrek funtzio erretoriko hutsa du; ozta dauka esangurarik. Hizkuntza-erregistro jakin bati dagokio, eta, hala ere, oihartzuna du guztion edo gehienon buruan.

Euskaraz, aldiz, oraindik sortzen ari gara erretorika-corpus hori. Beste hizkuntza-eremu askotan bezala, berandu gabilta inguruko hizkuntza normalizatuen aldean, euskararen corpora oraindik ez dago errotuta, eta erabiliaren erabiliaz baino ez zaigu gorpuztuz joango.

Itzultzaileak “gorpuztu gabeko corpus hori” (zilegi bekigu paradoxa) lehengai moduan darabil, eta egunero galdetzen dio bere buruari sistema horretatik zer hartu eta zer ez, eta testu jakin baten aurrean zerk balio izango duen eta zerk ez; zerk funtzionatuko duen eta zerk ez. Etsai gisa artifizialtasuna eta iluntasuna duela, ulergarritasunari begira, sinpletasun eta komunikagarritasunari begira jardungo du beti.

2.5. Hizkuntza estatikotik hizkuntza dinamikora

Irakasleak hizkuntza estandarizatua, bloke batekoa, estatikoa, jakintsuek ezarritakoa, irakatsiko du. Itzultzaileak, ordea, egunero aldatuz doan hizkuntza bati egin beharko dio aurre.

Hizkuntza alderdi askotan aldatzen da. Aldaketen zerrenda agortzeko bati asmorik gabe, esan dezagun teknologia dugula alde batean eta erregistroak bestean: kaleko hizkeraren bizitasun aparta eta euskarak orain arte gehiegi jorratu gabeko esparruak. Bizi garen aro teknologikoan euskarriak neurribako aldatuz doaz, eta hizkuntzak hara moldatu behar du. Erregistroak, bestetik, desberdinak dira, eta beste hizkera bat sortzen ari gara: In-

¹ Euskaltzaindia. (2012). Erretorika. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Bilbo, Donostia, Usurbil: Euskaltzaindia, Elkarlanean S.L., Elhuyar Fundazioa.

² Harluxet (2010). Erretorika. *Hiztegi Entziklopedikoa*. Hemendik berreskuratua: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

terneteko hizkera, sakelakoena, tabletana, plataforma digitalena... Euskarriak aldatzen ari dira, baita komunikatzeko, idazteko eta hartzailearengana iristeko moduak ere. Lehen, ahozkoa eta idatzizkoa baino ez genituen bereizten. Orain, euskarriek aldatu, eraldatu, eguneratu eta moldatu ere egingen dute hizkuntza. Gizarte-sareek bultzatzen gaituzte modu jakin batean idaztera. Blogek, webguneek, besteak beste, behartzen dute idazlea tesuinguru berrira egokitzera eta makurtzera, bere mezua helduko bada. Itzultzaileak hori ere jakin behar du, eta, berriz ere, aldakor, arin eta bat-batean jokatu beharko du. Hizkuntzaren mesedetan egingo du, nahiz eta gutxitan hala aitortuko dioten.

Irakaslea, aitzitik, horretaz jabetuko da, baina parte-hartzaile edota ikusle gisa, besterik ez. Teknologia-munduan jaioa bada edo erabiltzaile arrunta bada, ikusiko du berak ere aldaketak sumatzen dituela euskaraz idazteko edo komunikatzeko orduan. Hitz berriak nola erabili behar dituen galde-tuko dio bere buruari. Hala, erreparatuko die hizkuntza-adituek hartutako erabakiei, eta askotan ausartuko da ausartu ere zalantzatan ere jartzera. Nolanahi ere, pasibotasunez biziko du hori guztia.

Itzultzailea, aldiz, ezin da pasiboa izan; lan-eginkizunek ez diote hori baimentzen, eta, gainera, ez du gustuko pasibotasuna.

2.6. Hizkuntza bakarra transmititzetik hizkuntza batetik bestera ibiltzera

Irakasleak ikastaldeari beste hizkuntza bat helarazi behar dio, eta, zeharbidez, jakina, beste kultura bat. Nahi du, azken batean eta pragmatikoki, ikasleak kultura horretako hizkuntzaren hiztun osoak izan daitezen. Hizkuntzak ikastearen helburu instrumentatzailea eta integratzailea etengabe elkarri mokoka dabilzan bi kontzeptuak dira, irakasle prestu oro tormentatuko dutenak eta uztartu beharrekoak. Xede integratzailearen barruan beste kulturak protagonismo handia hartuko du, eta irakasleak aintzat hartu beharko du halabeharrez.

Labur eta apika sinpleegi esanda, hizkuntza bakar bati begira, xede-hizkuntzari begira, jardungo du irakasleak. Ez du hausnarketarik egin beharko jatorrizko hizkuntzaz, ikasleen ama-hizkuntzaz. Are gehiago, kontzienteki eta nahita saiatuko da aldentzen, ikasleen arreta guztia xede-hizkuntzara zuzen dadin.

Itzultzaileak hitzen esanahiak eta zentzuak lekualdatzen ditu, kontzeptuak batetik bestera egokituta. Kultura-egokitzapenez mintzatu beharra dago. Euskararen kasuan, itzultzaileak elebitasunarekin bizi behar du. Soziolinguistikoki gizarte diglosiko honetan hizkuntza biak ditugu etengabe bata besteari eraginez, askotan hala iruditzen ez bazaigu ere. Askotan, espainolak ere behartzen gaitu euskarazko esamoldeak eta esapideak aurkitzera eta bizi berria ematera hautsezaturik zeudenei edota landa-ingurukoak zirenei. Hala eta guztiz ere, itzultzaileak saiatu beharko du testua “constructum” berria

izan dadin eta ez, aldiz, eraldatuz joan den produktua. Jasotzailea aurrean itzulitako zerbait duela konturatzen ez denean, itzultze-lan hori arrakastatsua izan da, eta helburua lortu da.

Beraz, itzultzaileak hizkuntza batetik bestera ibili behar du joan-etorrian etengabe, hainbatetan hirugarren hizkuntza bat (eta laugarrena) ere tartean dabilela.

2.7. Hizkuntzaren zamaketaria izatetik sortzailea izatera

Irakasleak irudimena erabiliko du, baina eskola emateari begira, bere jardun didaktiko-pedagogikoari begira. Ikasleak corpus zehatza, zedarritua behar du. Lexikoaren arloan, esate baterako, hitzak emango zaizkio, eta ikasiko ditu zalantzarik gabe. Irakasle klasikoak, gainera, ez du begi onez ikusten ikaslea hitz-sortzailea edota emankorra izatea zentzu horretan. Ikaslea, irakasleak daramakion zama horretatik ezin da urrutira joan. Hizkuntzak mendean hartu behar du ikaslea.

Itzultzaileon kasuan, berriz, aldrebes da. Ez dago sorkuntzarik gabeko itzultzerik. Etengabe sortu behar ditugu berbak. Arineketan asmatu behar izaten ditugu hitz berriak, sarritan gai bakarreko erakusketetako testuak itzuli behar izan baititugu —horma-irudi, afixa eta txarteletako testu espezializatuak—, hain zuzen ere, euskaraz ozta-ozta jorratutako eremuie buruzkoak (joskintza, zapatagintza, jostailugintza...), lurralde berrien aurkikuntzan ibiliko bagina bezala.

Gure gizarte modernizatu eta teknologiadunean presiopean eta,aldi berean, asmamena baliaturik, irudimena eta sormena lagun eta bidaide izan behar ditugu. Honenbestez, errezetak asmatu, hizkuntza egin, birsortu, elikatu eta biziara ere egiten dugu. Azken batean, eraiki egiten dugu hizkuntza. Hizkuntzaren harginak gara, teoriarik gabe eta, gehienetan, hizkuntza eraiki ere egiten dugula jakin gabe.

Aipatzekoak dira Jon Sarasuaren hitzak: “Norbanakoaren jenio linguistikoa aldarrikatu behar da orain arte baino gehiago. Eraikuntza. Bizitza osoko eraikuntza pertsonala da hizkuntzaren kalitatea”(2013, 247. or.).

2.8. Estatus presentzialetik ikusezintasunera

Irakasleak badu izena, presentzia. Prestigioa ere badu. Toki nabarmen, goratu, pribilegiozkoa hartzen du bere «habitat»ean, ikasgelan. Aurrean eta beharagoko maila batean —edo, hierarkiarik onartzeko prest ez bagaude, beste dimentsio batean—, tartean nolabaiteko banaketa dagoelarik, ikasleak ditu. Badaki nor diren, nondik datozen eta haiek ere ezaguna dute. Izan ere, ikasleak dituelako da irakasle. Ikasleekiko da irakasle. Ikasle bako irakaslerik ez dago.

Itzultzailea, ordea, bakarra da, eta bakarrik jardun ohi du. Isolaturik, bakandua, bere buruaren jabe eta gatibu ere bai. Ikusezina da besteentzat. De-

nok esan ditzakegu bost idazle bikainen izenak, baina inork gutxi aipa litzake bost itzultzaile bikainenak, nahiz eta gure irakurgai asko eta asko itzulpenak izan. Irakurleak edo jasotzaileak ez du ezer jakingo itzultzaileaz eta existituko ez balitz bezala jokatuko du jokatu ere. Paradoxikoki, hori gertatzen bada, ederki asko bete du helburua itzultzaileak. Izan ere, hartzaileak ez du sumatu ere egin behar itzulpen baten aurrean dagoenik. Itzultzaileak ikusezina behar du izan. Bera da katebegi gardena eta ezinbestekoa, jatorrizko hizkuntzatik xede-hizkuntzara iragateko mezua.

Hala ere, ikusezintasunak sufrimendua eta isolamendua ere badakarkio itzultzaileari. Alde emozionala nabarmengarri da oso. Irakaslea babestua dago, badauka nork lagundu. Itzultzailearen barne-munduan hitz hauexek bizi dira: bakardadea, tentsioa, presioa, egonezina, zalantza, buruko eroa-pena, lan intelektual nekosoa...

Baina, aldi berean, hitz positiboa ere bai: hizkuntzaren maitasuna, idaztearen plazera, testugintzarekiko grina eta, neurri apalxeago batean, idazle izateko sentipena. Itzultzaileen mundu gazi-gozo hori urrun dago irakaslearenetik.

3. Horren guztiaren ondorioz

Behin aldeak zein diren ikusita, irakurle ezkor batek pentsa lezake ogibide bi horiek arras urrun daudela bata bestetik. Geuk, ordea, oso bestela ikusten ditugu: uste baino hurbilago, alegia.

Zalantzarik gabe, zubi-lana egin behar dugu bi eremu horien artean, hizkuntzaren mesedetan, baita arlo bietan diharduten profesionalen hobe beharrez ere. Denok igaro behar dugu zubi beretik, norabide bietan, hain zuzen ere. Elkarri bizkarra emanda bizi izan gara denbora luzeegian, baina elkarlanean egin behar dugu behar, elkarri ikasita.

Irakaskuntzako profesionalak itzulpeni merezi duten balioa eman beharko diete, ikasleei onuragarri izan dakiekeela sinestuta. Itzulpenari aitortu beharko diote izan dezakeen balio didaktikoa eskolak emateko orduan.

Bestaldetik, itzulpengintzako profesionalok ere gehiago hartu beharko genituzke kontuan irakasleak, sakonago geureganatu haien lan pedagogikoa, beraiek ere transmitutuko baitute hizkuntzaren maitasuna, errespetua eta ederra. Eguneroko eskoletan, irakasleek ikasleei ezagutaraziko diete itzultzaileak isilpean egiten duen lana, ondorio biderkatzaileak lortuz era honetara. Horrelaxe bakarrik iraugo du hizkuntzak; hain zuzen, hiztunek bere egin eta bizia emanaz.

Bibliografia

Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.